

**Intxaurrondo**

**Danborrada  
miniaturan**

Gaztelu kalean dabilen orok danborrariz eta banderadunez jantzitako 40tik gora panpin ikus ditzake Isabel Jimenez Lozaren bideo-klubean. Besteak beste, erakusleioa apaintzen noiz hasi zen eta panpinak nola jantzen dituen azaldu digu Isabelek

Gladys Villalba

Noiz jarri zenituen lehen aldiz panpinak erakusleioan?

Joan den urteko kaldereretan jarri nituen estreinako aldiz. Ondoren, inauterietan Errauskineren ipuina irudikatu nuen. Auzoko jaietan, berriz, blusekin jantzi nituen panpinak eta Santo Tomas egunean, baserritar. Ehundik gora panpina ditut, eta haietako 43 danborrariz eta banderadunez jantzi ditut.

Nola moldatzen zara panpinak jantzeko?

Oraingoan, adibidez, auzoko Intxaurrak danborradaren jantzia hartu dut eredutzat. Panpinen kasakak, txanoak, polainak eta bestelakoak eskuz egin ditut. Danbortxoak

plastikozko tutu moduko batzuekin egin ditut eta kupelatoxak, etxeko gortina zatiekin. Jantziak egiteko, erabiltzen ez dudana arropa baliatu dut.

Panpinen aurpegiek ez dute antz handirik elkarren artean...

Kontuan hartu behar da panpinak Barbie-ren antzekoak direla. Batzuei, mutil itxura emateko, ilea moztu eta tindatu egiten diet, beste batzuei bibotea eta bizarra jartzen diet...

Ez al zaizu inoiz bururatu erakusketa moduko zerbait antolatzea panpinak erakusteko?

Ez. Finean, helburua denda alaitzea delako, besterik gabe.

Zer diote bezeroek panpinak erakusleioan ikustera koan?

Bezero batek baino gehiagok zoriondu egin nau; Santo Tomas egunerako egindako apainketa asko gustatu zaio jendeari eta baserritar jantzi-tako panpinak erakusleiohotik ez kentzeko eskatu didate.

Intxaurrak danborradaren jantziak eredutzat hartu dituzu. Danborradan ateratzen al zara?



Ez naiz danborradan ateratzen, baina asko gustatzen zait San Sebastian eguna, donostiarra naiz eta; Parte Zaharrekoa, gainera!

**«Bezero batek baino gehiagok zoriondu nau»**

**Argitalpen honen edizioan lankide:**



**kutxa**  
gizarte ekintza